

Kultur Agenda

Traila
Uria
Agoitz
2023

📞 948 336 690 - 600 445 238

✉ cultura@aoiz.es

f Instagramen eta
Facebooken zaudu



www.aoiz.es


Agoizko Kultur Etxea
Casa de Cultura de Aoiz

 Nafarroako
Gobernua

 NAFARROAKO
ANTZOKI
SAREA

iraila

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

urria

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

iraila

1-16 Memoria Historikoari buruzko Zikloa. Erakusketa:
Emakumea eta Memoria Nafarroan

2 Dantza. Cultur-Izan 2023. IkasMutilDantzak

2 Pintxo-Potea

8 Bisita gidatua. Irulegi

10 Agoizko Zokoa. Azoka

15 Memoria Historikoari buruzko Zikloa. Oroitzapen ekitaldia

16 Memoria Historikokoari buruzko Zikloa. Luburu aurkezpena:
El Diario de Mola

22 Ondareari Buruzko Europako Jardunaldiak. Aurkezpena

23 Ondareari Buruzko Europako Jardunaldiak. Ibilaldia

24 Memoria Historikokoari buruzko Zikloa. Antzerkia: *Presas*

24 Agoizko Mendi Lasterketa.

29-1 (iraila/urria) **San Miguel 2023**

29 Antzerkia. Pirrotx, Porrotx eta Marimotots

30 Ondareari Buruzko Europako Jardunaldiak. Irudikapena
Lehiaketak. *Agoitz Hiria XVIII. Argazki Lehiaketa*

Ikastaroak 2023-24. Izen-emateak: cultura@aoiz.es / 600 445 238

Irakurketa Kluba. Informazio gehiago Kultur Etxean

urria

7 Pintxo-Potea

15 Antzerkia. Sendaberri Programa. *Artxipielago*

22 Antzerkia. Literarte Festibala. *Las historias que cuentan*

20-4 (urria/azaroa) **Erakusketak.**

*Itoiz, Artozki eta gainerako herriak hustu eta eraitsi zireneko
20. urteurrena eta haietan izandako borroka eta erresistentzia*

25 Era Txokoa. Jolastuko Gara, kanta eta jolas tailerra

28 Era Txokoa. Ezagutu Agoitz (herriko ondarea eta kultura)

29 Musika. Kuarits. *Vuelo de Notas*

Irakurle Taldea euskaraz. Hilean behin

Mintzakide. Euskara praktikatzeko jarduerak



Memoria Historikoari buruzko Zikloa



ARGAZKI ERAKUSKETA EMAKUMEA ETA MEMORIA NAFARROAN

1-16 iraila. Areto Nagusia
Asteartetik larunbatera: 18:00-20:00

Emakumea eta Memoria Nafarroan (EMEN) erakusketak 1936ko kolpe militarren ondoren gurasoak edo osaba-izebak nola desagertzen ziren (modu basatian erail zituzten) ikusi zuten emakume batzuen memoria berreskuratzen du. Emakume horiek galeraren ondorioak jasan dituzte beren bizitza osoan zehar, bai maila pertsonalean, bai familiarrean edo sozialean. Nekezia pairatu izan duten emakumeak dira, eta bizitza osoan zehar oroimenaren enbor bihurtu dira. Familiaren konpromiso sozial eta politikoari balioa eman nahi zioa, basakeria frankistaren zentzugabekeria erakutsi, eta, batez ere, errespetuan, elkartasunean, ekitatean eta justizia sozialean oinarritutako gizartea eraikitzeko beharra adierazi.

Autorea: Iñaki Porto

Inaugurazioa: irailak 1 | ostirala | 19:30

Antolatzailea: Bakearen Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia.



AGOIZKO FUSILATUAK ETA ERREPRESALIATUAK OROITZEKO EKITALDIA

irailak 15 | ostirala | 20:00 | Oriomenaren parkea



LITERATURA: LIBURU AURKEZPENA EL DIARIO DE MOLA

16 iraila, larunbata. **20:00**
Kultur Etxea

Idazlea: Pello Guerra Viscarret

1937ko ekaina, Mola hil zen, Burgosera zihoan hegazkina erori zenean. Handik gutxira, jeneralak Gasteizko Kuartel Nagusian eta Iruñeko Gobernu Militarrean gordetzen zituen egunkari pertsonalak desagertu ziren. Haren alargun Consuelo Basconek kosta ahala kosta berreskuratu nahi du Nafarroako hiriburuan zegoena, eta Diario de Navarra egunkariko zuzendari Raimundo Garcilasorekin harremanetan jarri da. Azken horrek Altxamenduaren bultzatzaileentzat hain konprometitua dagoen informazioa bilatzeari ekin zion.



ANTZERKIA PRESAS

24 iraila, igandea. **19:30**
Kultur Etxea. 6€

16 urtetik aurrera. 90'

Presas emakumezkoen espetxe batean gertatzen da, Espainiako lekuren batean, 40ko eta 50eko hamarkaden artean. Espetxean nekez bizi dira bederatzi emakume, hau edo hura egin izanaz akusatuta: lapurreta, prostituzioa, adulterioa, delitu politikoa eta beste. Espetxea mojek gobernatzen dute. Bestelako pertsonaiak ere badira, hala nola espetxeko zuzendaria, emakume espetxeratu baten abokatua, sendagilea, apeza eta kartzelako maisua. Honatx istorioaren hasiera: emakume bat San Perpetuoren Jubileuaren ospakizunetik egun gutxira espetxeratu dute. Jubileu hori dela eta, hamar urtez behin, apezpikuak emakume espetxeratuetakoa bat indultzen du.

El Bardo Antzerki Kompainia amateurra (Atarrabia)

Egileak: Verónica Fernández, Ignacio del Moral

Zuzendaria: Montse Zabalza

Ikastaroak eta Tailerrak

IKASTAROAK 2023-2024

IZEN-EMATEAK: irailaren 4etik 22ra / cultura@aoiz.es / 600 445 238

Adi! deiak eta e-mailak ordenaren arabera kontutan hartuko dira.

Irailaren 4an goizeko 10:00etatik aurrera.

Aurretik jasotako posta eta deiak ez dira kontuan hartuko.

OHARRA: Materiala ez dago barne.

ANTZINAKO ALTZARIEN LEHENGORATZEA

Urria-Maiatza.

Astelehenak, 17:00-20:00 (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko pisua)

Irakaslea: Arantza Martinena / **Matrikula:** 140 €. Plaza kopurua: 12



HELDUENTZAKO PINTURA: HASTAPENA ETA

Urria-Maiatza.

HOBEKUNTZA

Astearteak, 18:30-20:30 (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko pisua)

Irakaslea: Alodia Lusarreta / **Matrikula:** 100 €. Plaza kopurua: 12



ARTE PLASTIKOAK HAUR-GAZTE: 5-14 URTE. EUSKARAZ

Urria-Maiatza.

Astearteak, 17:30-18:30 (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko pisua)

Irakaslea: Alodia Lusarreta / **Matrikula:** 60 €. Plaza kopurua: 10

IRAKURKETA KLUBA

Irailetik maiatzera, literaturazaleentzako saioak.

Parte hartu nahi baduzu, izen-ematea eta informazio gehiago Kultur Etxean.

Taldeko koordinatzailea: **Socorro Latasa Miranda**

Lehenengo saioa: irailaren 21ean, 17:30etan

16 urtetik gorakoentzat / Baldintza: liburutegiko kidea izatea / Matrikula doan

Dantza

CULTUR-IZAN 2023

Tradiziozko Arte adierazpenen egitaraua

Cultur-Izan Kultura Zuzendaritza Nagusiak bultzatutako programaren helburua da Nafarroako musika, dantza eta ahozko adierazpen herrikoiak zabaltzea eta haien arteko bitartekaritza egitea, guztiak ere kultur ondare immaterialaren elementuak baitira.



IkasMutilDantzak

2 iraila, larunbata
Kultur Etxea

Prestakuntza Tailerra: 9:30-14:00 / 16:00-18:50

Parte-hartzaileen Konturako Erakusketa: 19:00-19:30

Nafarroako Dantzarien Biltzarrak Baztango mutil-dantzen inguruan antolatutako prestakuntza zikloa, Foru Komunitate osoan horien ezagutza eta sozializazioa bultzatzeko. Jarduera berdintasunaren eta inklusibitatearen balioak kontuan hartuta diseinatu da, eta interesa duten guztiak hartzen ahalko dute parte. Baztandarrak taldeko kideek zuzenduko dute prestakuntza saio bakoitza, eta, amaitzeko, ikasitakoa erakutsiko da partaidetza eta bizikidetzaren giroan.

Doako izen-ematea: cultura@aoiz.es / 600 445 238

URTEAK BETE, ABENTURAK BIZI! PIRROTX, PORROTX ETA MARIMOTOTS



29 iraila, ostirala. **18:00**
Merkatuko Plaza. Sarrera doan

Antzerki musikala familiarra / Euskaraz
Euria eginez gero frontoian izango da.

35 urte beteko ditugu pailazo taldeak eta horren ospakizuna izanen da saioa. Sudurgorriorion bizitzan lagun egin ditugun hainbat etorriko dira bisitan ospakizunean parte hartzera. Kantua, dantza eta denon parte-hartzea ez da faltako, ezta tarte erraldoia ere... Urteak betetzea garrantzitsua bada, are gehiago abenturak bizitzea!... eta hori izanen da gure ospakizuna, beste abentura bat bizitzea!

SENDABERRI PROGRAMA, PAISAIA ESZENIKO BERRIAK

Sendaberri
Nuevos paisajes escénicos
Paisaia eszeniko berriak

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kirol Departamentuarekin lankidetzan diseinatutako Nafarroako Antzokien Sarearen ziklo propioa da. Gure espazio eszenikoen ohiko programazioa aberastea eta osatzea du helburu, lengoia berritzaileen erabileraren bidez eta kontzientzia kritikoa sortzen duten ikuskizunei esker.

ARTXIPIELAGO COMPAÑÍA LA TRAPEACIONISTA



15 urria, igandea. **19:00**
Kultur Etxea. 6€

Zirku koreografikoa / Publiko guztiak. 45'

Jatorrizko ideia, koreografia eta eszenaratzea:
Maitane Azpiroz

Protagonistak bakarkako bidaia egiten du *Artxipielago*n, biolontxelo baten musikak eta berarekin batera eraldatzen den paisaiak lagundurik, une batzuetan zintzilik, eta bestetan, aireko dantzan.

LAS HISTORIAS QUE CUENTAN PRODUCCIONES MAESTRAS: LITERARTE FESTIBALA



22 urria, igandea. **19:00**
Kultur Etxea. Sarrera doan

Publiko gaztea-heldua. 60'

LiterArte Jaialdiaren barruan programatutako jarduera:
Nafarroako Producciones Maestras antzerki konpainia eta irakurketa-kluben arteko lankidetzaren emaitza.

Las historias que cuentan antzezlanean, itxuraz zerikusirik ez duten lau istorio oinarri komun batetik sortzen dira: amaitutako liburu baten sentsazio gozoa.

Dramaturgia: Laura Laiglesia, Miguel Goikoetxandia,
Virginia Moriones eta Ana Maestrojuán.



Antolatzaileak: Liburutegi Sarea, Irakurketa Klubak, Espazio Eszenikoak eta Producciones Maestras antzerki konpainia.

Bartekaritze-jardura: Parte-hartzaileen funtzioaren ondoren publikoarekin elkartzea, egile bat eta zuzendaria.

ITOIZ, ARTOZKI ETA GAINERAKO HERRIAK HUSTU ETA ERAITSI ZIRENEKO 20. URTEURRENA ETA HAIETAN IZANDAKO BORROKA ETA ERRESISTENTZIA



20-4 urria-azaroa
Areto Nagusia

Inaugurazio-jardunaldiak: **urriak 21 | larunbata**

Erakusketa hiru ardatzen inguruan garatzen da:

a) **ARTEZKI** Artozkin sortu zen mugimendu bat izan zen, eraikina hustu aurreko asteetan. Mugimendu horrek hainbat artistari dei egin zien erresistentziari laguntzeko lanen bat ekartzera. Hogeita hamar bat artistaren lanak izanen ditugu ikusgai; herriko elizan izan zirenak egun haietan. Besteak beste: Jose Luis Zumeta, Koldo Arnanz, Ander Hormazuri, Keixeta, Anton Mendizabal, Jose Ramón Anda, Juan Gorriti, Iñaki Olazabak, Dora Salazar, Barbara Stammel, Igor Obeso, Luis Morea, Koldo Agarraberes, Joseba Lekuona, Xabier Morras, Gonzalo Etxebarria... Horietako batzuek parte hartuko dute eta testigantza emanen dute.

Bertan izanen da, halaber, artista gipuzkoarrek, argitaletxeek, argazkilariek, idazleek, musikariek, kirolariek eta abarrek egindako lana.

b) **Eraistea eta hustea + erresistentzia (desobedientzia zibila):** argazkiak, kartelak, hemeroteka, bideoak...

c) **Memoria-oroitzapena:** Eraisteko objektuak, oroitzapen-objektuak... erakutsiko dira.

Antolatzailea: Itoizekin solidarioak eta erresistentzian eta egun horietan Agoitzen egin ziren ekintzetan parte hartu zuten pertsonak

San Migel 2023

Irailaren 29tik urriaren 1a arte

San Migelen egitarau osoa etorkizunean jakinaraziko da.

Musika

VUELO DE NOTAS KUARITS SAXOFOI LAUKOTEA

29 urria, igandea. **18:30**
Kultur Etxea. **5€**



Kuarist musikari gazteen laukotea da. Saxofoiaren musika-aukerak garatu nahi dituzte eta musika klasikoan eta garaikidean espezializatuta daude.

Antzezleak: Leire Unzué, Carmen Ferrando, Josu Marauri eta Sergio Eslava.

Bidaia bat munduko hainbat lekutan zehar, milaka sentsazio eta sorpresa adierazten dizkiguten soinu pintzelkada txikiak. Sarajevo, Adís Abbeba eta beste hainbat lekutatik, Frantzia, Gipuzkoa, etab. Laukote honek musika estilo ezberdinez betetako kontzertu bat aurkezten du. Zerbait desberdina, hunkigarria eta, batez ere, abegikorra.

Beste Jarduerak

PINTXO-POTEa

irailak 2 eta urriak 7 | larunbata | 19:00

pintxopoté



BISITA GIDATUA IRULEGIRA

irailak 8 | ostirala | 16:15 | 10€

Bisita gidatua Irulegira Aranzadiko arkeologoekin.

Bisita ez da egokia mugikortasun urriko pertsonentzat, ezta 8 urtetik beherakoentzat ere.

Izen-emateak: Agoizko Udala / 948 33 60 05 / publico@aoiz.es



ARANTZADI

DEPARTAMENTO DE ARAZ
AGRICULTURA



Agosio Mendi Lasterketa
Carrera de Montaña Aizoa



AGOIZKO ZOKOA

irailak 10 | igandea | 10:00-14:30

Agoizko kale nagusian kokaturiko aire zabaleko azoka da, non ekoizle, merkatar, artisau eta pertsonen postuekin herriko bizitza sozioekonomikoa biziberritzen da.

Zokok Irati S.A-ren historia ezagutzeko aukera ematen dizu. Erakusketa maketek, panelek eta argazkiek osatzen dute. Bisitaldi gidatuak Víctor Manuel Egia-rekin.

Bisiten ordutegia: 11:00 eta 12:00 (bi talde).

ONDAREARI BURUZKO EUROPAKO JARDUNALDIAK

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusia – Vianako Printzea Erakundea Europako Kontseiluak Ondarearen Europako Jardunaldiak egiteko sustatutako ekimenarekin bat egiten du, "Ondare bizia"/"Ondarea bizirik!" lelopean. Ondareak oraindik bizirik dirauten belaunaldi batetik bestera transmititutako praktikak, ezagutzak eta trebetasunak transmititzeko duen ahalmena nabarmentzea da asmoa. Tokiko ondarearen interpretazioa sustatzea, beti mugimenduan dagoen nortasun- eta jarraitutasun-zentzua ematen digun parte-hartze aktibotik abiatuta.



European Heritage Days
Journées européennes
du patrimoine



AURKEZPENA

Agoizko udalerriko toponimiari, mugarrii eta iturrii buruz HIDEA Agoizko Historia Kultur Elkarteak egindako lanaren aurkezpena

irailak 22 | ostirala | 19:00 | Kultur Etxea



IBILALDI HISTORIKO-NATURALA, GUENDULAINGO BIDEAREN INGURUAN

irailak 23 | larunbata | 9:30

Irteera, San Migel elizako aparkalekutik

Euskaraz eta gaztelaniaz egiteko aukera duen jarduera.

Pertsona guztientzat.



Agosio Mendi Lasterketa
Carrera de Montaña Aizoa



cedema garaluz



AGARAMONTARREN ETA BEAUMONDARREN ARTEKO BAKEAREN SINADURAREN IRUDIKAPENA

irailak 30 | larunbata | 13:00

Nafarroa Beherea plaza, frontoian euria eginez gero

Agoizko dantzak. Alde batetik, 1479an agaramontarren eta beaumontarren arteko gerra eta geroko bakearen sinadura irudikatzen dute, gure herriko armariak irudikatzen duen jazoeran oinarrituta. Bestetik, duela mende batzuk hainbesteko ospea zuten herriko oihalgileen lana irudikatzen da (agoizkoak, sinpleak izateaz gain, lanbide horrekin lotuta gaude).

ARANTZADI

DEPARTAMENTO DE ARAZ
AGRICULTURA



Agosio Mendi Lasterketa
Carrera de Montaña Aizoa



AGOIZKO MENDI LASTERKETA NAFARROAKO RANKING-A 2023

irailak 24 | igandea | 9:30

Luzea: 21,5 km, 1.300m+, 20 €.

Motza: 11,5 km, 700m+, 14 €.

Izen-emateak: www.kronoak.com



Agosio Mendi Lasterketa
Carrera de Montaña Aizoa

Lehiaketak

AGOITZ HIRIA XVIII. ARGAZKI LEHIAKETA



Parte hartzaileak: Nahi duen oro.

Gaia: Agoitz.

Sariak:

Lehenengoa: **500€** (mundu guztia zabaldutako modalitatea).

Publikoaren saria: **300€** (Agoitzen erroldatutakoei zuzendutako modalitatea).

Aurkezpena: Irailaren 4tik urriaren 16a arte, udaletxean.

Oinarriak: Udaletxea, Kultur Etxea eta www.aoiz.es

Jarduerak euskaraz

IRAKURLE TALDEA (euskaraz)

Hilean behin | 18:00 | Euskararen Etxea

Lehenengo saioa, urrian (eguna zehaztu gabe).

Gidaria: **Mikel Albisu**

Izen-emateak: irailaren 29a arte / ninaizmikelantza@gmail.com / Doan



MINTZAKIDE

Euskaldun eta euskara ikasleentzat, euskara praktikatzeko.

Ikasturte osoan zehar (ostiral, larunbat edo igandetan).

Izen-emateak: irailaren 29a arte / mintzakide@aek.org

Bilera: urriaren 6an / 20:00 / Euskararen Etxea



ERA TXOKOA

JOLASTUKO GARA, KANTA ETA JOLAS TAILERRA

urriak 25 | 17:00-18:30 | Euskararen Etxea | 3€

Euskaraz aritzeko familientzako baliabideak.

4-6 urte bitartekoak eta haien gurasoak.

Emaila: **Dindaia**

Izen-emateak: urriaren 18a arte / euskara.aezkoa.agoitz@gmail.com



Dindaia

ERA TXOKOA

EZAGUTU AGOITZ (HERRIKO ONDAREA ETA KULTURA)

urriak 28 | 17:00-18:30 | Euskararen Etxea | 3€

4-6 urteko haurrak / 16:30-18:00

7-10 urteko haurrak / 18:00-19:30

Emaila: **Karekin Kultura**

Izen-emateak: urriaren 18a arte / euskara.aezkoa.agoitz@gmail.com



Jendocarentzako arreta, astelchenetik ostiralera (10:00-14:00)

☎ 948 336 690 - 600 445 238 ✉ cultura@aoiz.es f Instagramen eta Facebooken zaudu

www.aoiz.es